

Ilarramendiren ondoren, Ikutza Berri

Buruntza auzuneko industria alorreko eraldaketak aurretik eramango ditu Ilarramendi, Ikutza Berri eta Perikotegi baserriak / 4-5



Udalekuak 2020

Ekainak 29 - uztailak 24
bitartean ospatuko dira



2009 - 2014 urte
bitartean jaiotako
haurrek parte hartu
ahal izango dute

Izena emateko epea
eta lekuak:
ekainak 10 - 16

- Gazte Informazio
Puntua
- www.urnieta.eus
- 943 33 39 73 eta
943 00 80 33

LOURDES IRIONDO

UDAL MUSIKA ESKOLA

2020-2021 IKASTURTEA

Aurrematrikula
gauzatzeke
epea:
ekainak 10 - 17


Eskaintza zabala:

- Musika tailerra
- Musika hizkuntza
- Espezialitateak
- Instrumentu taldeak



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

KUPLA KULTUR PLATAFORMA EUSKADI

Ikus-entzunezkoen sektorearen eta kulturaren manifestua

Kultura plataforma kulturaren sektorearen egoerari erantzuteko sortu zen. Bertan, teknikariak, artistak, enpresak... batzen gara, azken finean, kultura eta sormen-industriarekin zerikusia duten pertsona guztiak, eta hau da gure oihua: Ez gaitzazue desagertzen utzi; izan ere, 768 milioi euro sortzen dituen sektore bat desegingo da, EAEko BPGren% 3 eta% 5 artekoa. Sektore hau altxatu eta profesionalizatu egin da azken bi hamarkada eskasetan, eta ia 7.000 pertsonak egiten dugu lan bertan.

Horregatik bildu gara manifestu hau egiteko. Guztiok, sektore garen aldetik, zerbitzuak ematen dituzten enpresek, besteren konturako langileek, autonomoek eta artistek, ondorioztatu dugu, beharrezkoa dela gutxieneko proposamen batzuk idaztea. Gizarteak, oro har eta, bereziki, agintari eskudunek, entzun gaitzaten. Gure sektorearekiko babesgabetasuna eta sentibilizazio falta direla-eta, batez ere ziurgabetasun-une hauetan.

Izan ere, ez da ahaztu behar ekonomiarako sektore estrategiko baten parte garela; adibidez, musikak 90 milioi

euro sortzen ditu urtean, nahiz eta ez gauden profesional gisa hartuta ez eta EAEko industria-egituraren barruan sartuta ere. Baina konfinamenduan bereziki nabarmendu izan da, kultura izan dela biztanleriarentzat gehiegizko informazioaren, antsietatearen, bakardadearen eta tristuraren ekaitzaren aurrean, sostengua.

Hain zuzen ere, jarduera geldiarazten lehenak izan ginen (Bartzelonako MWCK estatu osoko milaka profesional erabiliko zituen, eta birak, biltzarrak eta mota guztietako ikuskizunak egingo ziren, martxoaren 15eko alarma-egoera baino lehen), eta azkenak izango gara berriro martxan jartzen.

Gaur egun, erakundeek ez dute jarduerara itzultzeko estimazio errealistarik, ezta bestelako proposamenik ere. Are gehiago, baliteke zuzeneko irudikapenen ezaugarri bereziengatik, hilabete batzuk barru ere osasun edo logistika arrazoiengatik, bai irudikapen horien sustatzaileentzako errentagarritasun ekonomikoagatik.

Erakundeen immobilismoak, porrot egingo die sektoreko enpresei eta langile askori, eta migrazioa joko dugu, kultura

malkartsua, pobretua eta altxatzeko egituraketa nahikorik gabea utzita. Badira urte batzuk gure bizilagunak diren, Ingalaterra edo Frantzia ikusten ditugula, beren aldiakotasunarekin, gure sektorearen arazoei aurre egiteko alternatiba gisa, edo Alemania ondo egituratutako erregulazioarekin, gremioen espezializazio eta kategorizazio maila handiarekin eta txandakatutako 8 orduko lanaldiekin.

Datu itzel horiek agerian jarri ondoren eta zentzuduna iruditu arren edozein administrazio zuhur gai izango litzatekeela ikusteko, industria honetan, arimarentzat elikagaia sortzen duen tresna indartsu bat, eta

herrialdearentzat aberastasuna eta enplegua sortzeko motor bat, geure burua eskaintzen diegu gure agintariei sektorearen berezitasunetarako ekintzak eta proposamen espezifikoak planifikatzeko. Hilzorian utzi gabe, agian hilabete batzuen buruan, hondamendia gaindiezina izango da eta.

Arrazoi horiengatik, eta larrialdi-egoera honetan gizartean dugun rola onartu arren, nahitaez jarduerarik gabe eta mobilizazio masiborik hasi gabe egon arren, egoera premiazkoa izan arren, premiazko arreta eta proposamenen balorazioa eskatzen dugu. Batzeko aukera eman gaitzaten, erakundeekiko sinergiak sortzeko, gure esperientzia kontatzeko, denok batera egoera honetatik atera ahal izateko eta beharrezkoak ikusten ditugun erabakiak hartzeko aukera eman diezagutela, hala nola:

- Jendaurreko edozein ekitalditan segurtasuna eta higiena bete ahal izateko protokolo espezifiko bat egitea.
- Une honetan jada planteatuta dauden jardueren bideragarritasuna bilatzea.
- Salbuespenezko laguntza bat ezartzea, sektore osoa estaliko duena, beste industria-sektore batzuekin gertatzen den bezala, larrialdi-egoerak eragindako jarduerarik gabeko aldia, eta erabateko jarduera berreskuratu arte hedatuko dena.

Arduratsuak garelako, gure balio sozial eta ekonomikoa landu eta mantendu nahi dugulako, eta gure etorkizuna epe labur, ertain eta luzera planifikatu behar dugulako.

Eusko jaurlaritzak gure eskaerak entzun eta sektorea berrindartzeko eskura dituen erraminta guztiak martxan jartzea espero dugu.



Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzailea: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urrieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALITUAK:**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA BURUNTZALDEA

Etxean geratu naiz, orain kalera aterako gara



Euskal Herrian barrena mobilizazioak deitu dituzte, datorren ekainaren 19rako. KARTA

Luzeak egin zaizkigu egunak. Ikusezina den zerbaitek gure egunerokotasuna goitik behera zeharkatu du eta normalitatea hautsi. Dagoeneko gauzak aldatu dira eta ez gara lehengora bueltatuko. Berdin zaigu, ordea, guk ez dugulako nahi aurreko normalitatea, guk aurrera egin nahi dugulako. Atzean utzi nahi dugu osasun krisi bati erantzuteko gai ez den jendarte antolaketa. Pertsonak, komunitateak eta planeta babestea lehenetsi behar da, ez merkatua, etekin ekonomikoa eta jabetza pribatua. Langile eta herri sektoreen interesak erdigunean jartzeko unea da. Lehenik bizitza!

Azken hamarkadetan gobernatzen gaituztenek hartu dituzten neurriak neoliberalak izan dira eta horrek kolapso egoerara eramane gaitu. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista, ekoizda, kolonialista eraman ditu gure bizitzak kolapsora. Banka erreskatatu, zerbitzu publikoetan etengabeko murrizketak egin, lan

erreformen bidez soldatapeko lana aseezina den merkatuaren menpe utzi eta beharrezkoak diren lanak ezkutuan mantentzeko politikak egiten dira egunero-egunero gurean.

Krisiak aldaketa garaia eta aukeren momentuak omen dira. Euskal Herria. XXI. mendea. Bizitzak sostengatzeko gure burua gobernatu nahi dugu, erabakiak hemen hartu, gehiengoen arabera politikak egiteko. Eredu sozio-produktibo berria ezinbestekoa da, erabateko norabide aldaketa exijitzen dugu. Ez gara gutxiagorekin konformatuko.

Agiri honekin bat egiten dugunok errealitate berria aldarrikatu nahi dugu. Orain arteko norabidean segitzea jasagarria dela pentsatzea utopia neoliberal da. Bizitzak erdigunera / Bizitza lehenik.

EKUBIDE GUZTIAK GUZTIONTZAT

Herritar askeak izan nahi dugu. Horretarako guztion eskubide sozialak –osasuna, hezkuntza, elikadura

osasuntsua, etxebizitza, kultura– bermatu eta erabakiak hartzeko ahalmena ezinbestekoak zaizkigu. Jendarte demokratikoa; jatorri, arraza sexu-genero, hizkuntza eta edozein diskriminazio errotik ezabatuko duena. Instituzioek herritar guztion eskubideak bermatzeko berezko misioa dutela ulertuz, indibidualismoan oinarrituriko eredu batetik praktika kolektibo-komunitarioak sustatuko dituen eredurantzko trantsizioa egin behar dugu, guztionak diren bitartekoak guztion eskura jarri eta guztiok gure ekarpena eginez.

Pertsonen arteko sareak, harremanak, trukeak, elkar zaintzak indartuz Herri burujabetza ariketa etengabea izango da gurea. Alarma egoeraren baitan hartu diren kontrol neurriak zein estatuaren birzentralizazioaren aurrean, burujabetzak aldarrikatzen ditugu: gure gorputzari buruzko erabakia, gure herriaren etorkizuna, gure proiektu autoeratuak eta gure

eredu sozio produktiboa garatzeko ahalmen osoa.

LANA(K) BERRANTOLATU

Bizitzak sostengatzen dituzten lanak aitortu eta banatu behar ditugu, eta langile orori lan baldintza duinak bermatu, egoera administratibo irregularrean daudenenak barne. Produzitzen duguna berraztertu, ekarpen soziala lehenetsi, jakintza hedatu eta lan orduak murriztu behar ditugu. Lana banatu, kalitatezko enplegua sortu, jendarte kontrola bermatu eta lan egiteko bizi baino, bizitzeko lan egin behar dugu. Alternatiba badago eta gure esku dago.

BABES SOZIALERAKO SISTEMA INDARTU. OSASUNA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU

Sistema publiko eta komunari balorea eman (jabetza publikoa, eredu partehartzailea), kronifikatu den pobrezia eta prekarietateari aurre egiteko. Herritarrek babesteko sistema eraginkor, indartsu eta propioa behar dugu, bertatik bertara eraikia dena. Egoera zaurgarrienean dauden kolektiboen bizi beharrak asetzeko erronka daukagu. Egoera zaurgarrietan dauden

kolektiboen bizi-beharrak asetzeko erronka izanik, herritar guztiok bizitza duina izateko dugun eskubide helburu beharko luke.

KAPITALAK ORDAINDU DEZALA/ ABERATSEK ORDAIN DEZATELA

Herritarrek ez gaude prest sistema kapitalistak sortu duen krisiaren ondorio kaltegarriak gure bizkar hartzeko. Askoren lanaren etekinetatik gutxi batzuek metatutako aberastasuna modu ekitatiboan banatzeko garaia da. Zor ilegitimorik ez dugu onartuko eta gehien duenak gehien ordain dezatan, erreforma fiskal sakonak beharrezkoak izango dira. Instituzioak patronalaren menpe eta kapitalaren bahu izateari utzi eta herri sektoreon mesedetara jarri behar dira.

Egoera grisa marrazten badigute ere, guk koloretako etorkizuna irudikatzen jarraitu behar dugu, gure urratsak norabidetzeko. Klean mobilizatuko gara. Une bakoitzean tokian tokiko errealitatea egokitu eta beharrezkoa osasun neurriak arduraz betez. Deialdia lau haizetara zabaldu nahi dugu, lehenik bizitza! aldarrikatuz.

EKAINAREN 19AN EUSKAL HERRI OSOAN ZEHAR ZABALDUKO DIREN MOBILIZAZIOAK IRAGARRI DITUZTE

BURUNTZALDEKO ERAGILEAK PRESTAKETA LANETAN MURGILDUTA DAUDE





Ikutza Berri baserria eraisteko bezperatan ateratako argazkia. Astelehenean su eman zioten inguruko sastraka sortari eta bertatik ateratzen ziren kea eta usaina Ama Kandidan, Nafarroa plazan, Kaletxikin eta Leizotz auzoan barrena barreiatu ziren. AIURRI

Illarramendiren atzetik, Ikutza berri

Ikutza Berri baserria da Illarramendi inguruko proiektu urbanistikoak deuseztatzea kontenplazten duen hiru baserrietako bat; Illarramendi eta Periketegi dira beste biak. Joan den astean eraitsi zituzten Ikutza Berriren hondakinak, aspaldi baitzegoen utzita

Xabier Lasa ANDOAIN

Buruntza Auzoan zegoen Ikutza Berriren historia eta bere jatorria arakatzen hasita, oso atzera jo beharra daukagu, XVI. mendera hain zuten. Lope Martinez de Isasti historialariak 1625ean idatzi zuen *Compendio historico de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa I* liburuan, besteak beste, Andoingo etxe eta baserrien zerrenda aurkeztu zuen, eta bertan Ikutza Berri izendatuta ageri da jada. Halaber, Maria

Rosa Ayerbe eta Luis Miguel Diez de Salazar historialari andoaindarrek atondu zuten *Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Guipúzcoa* (Leyçaur 0 aldizkaria, 1996) liburuak ere ematen du aditzera Ikutza Berriren izatea.

Bi historialariek hitzaurrean zehaztu zutenenez, euren egitasmoa 1379-1615 epe historikoa aztertzea izan zen, baina Andoingo baitaio liburuak 1679an hasten direnez, eta jaunartze, ezkontza

eta heriotzen liburuak, berriz, XVIII eta XIXan, bada, protokolo notarialen informazio iturrira jo behar izan zuten. Egia esan, agiri ofizial horietan, herritarri buruzko hainbat arloekin (ekonomia, legeak, bizimodua, ohiturak...) zerikusia duen informazioa topa daiteke. Horrela, dokumentazio horretatik tiraka gehienbat, XVI. eta XVII. mendeetako andoaindarren historiaren zati bat argitan jartzea lortu zuten; zehatzago esanda, ze etxe eta baserri zeuden

zutik eta horietan zein familiak bizi ziren.

Horrela, badakigu XVI. mendean Andoainen bi etxe zeudela Ikutza izenarekin, bata Icuza de Suso (397-398. or.) eta bestea de Icuza de Yuso; lehena litzateke Ikutza Berri.

XVI. mendearen lehen erdialdean ekin zion Ikutza Berriren etxearen historiak. Garai hartan Juanes de Icuza ageri da etxeke nagusi gisa. Bere seme-alabak Domenja eta Domingo izan ziren. Etxearen oinordeko gisa izendatutako Domingo bi aldiz ezkondu zen, Churdiña de Ochoarenarekin lehenbizi eta Maria de Anizquetarekin ondoren, eta lau seme-alaba izan zituen: Maria Ruiz, Maria Gomez, Maria Joaneiz eta Joanes. Seme alaba horietatik Maria Ruizek hartu zuen etxea oinordean. Aldi berean, Pedro Areizmendi Gargarrirekin ezkondu zen, eta biek hiru seme-alaba izan zituzten: Maria Gomez, Migel eta Domenja. Maria Ruiz oso gazte zela alargun geratu zen, eta protokolo notarialetan azaltzen denez, ez dirudi bizimodu samurra eduki zuenik: besteak beste, Tolosako alkateari bere seme-alabak zaintzeko baimena eskatu behar izan zion, semea ere oso gaztetan hil zitzaion,

etxearen oinordetzagatik beste hiru anai-arrebei zegokiena ordaindu behar izan zien, eta, Buruntzako sarobearen 1/5a eskuratzeko epaitegietan jardun behar izan zuen. Halaber, Maria Ruizek, bere alaba Maria Gomez (Areizmendi Icuza) izendatu zuen etxearen oinordekotzat, eta Juan Perez de Egusquizarekin ezkontzeko tratua egin zuen; ezkontzarako, alaba horrek, Ikutza Berriko etxea, Gorostidiko borda eta beste zenbait ondasun eskaini zituen dote gisa. Icuza etxean Juan Perez jarri zen agintzen, nahiz eta bertan oraindik bizi bere amaginarreba, Maria Ruiz.

XVI. mendetik XX. menderako jausia eginez, 1900. urtera iristen bagara, Ikutza Berri baserrian Zuloaga Irazusta familia topa dezakegu; maizter gisa bizi da familia. Bertan Concepcion Irazusta Etxabeguren 54 urteko alargun zizurkildarra bizi da (bere senarra, Andoainen jaio-tako Pablo Zuloaga Zubiarrain

**BURUNTZA AUZUNEN
ERALDAKETAREKIN
HISTORIA LUZEA
DUTEN HIRU BASERRI
ERAITSIKO DITUZTE**



Familia ugari bizi izan da baserrian. Otaño Ezeiza familia izan da azkena (Aierbe eta Diaz de Salazarren *Leyçaur 0* liburuan, etxe eta baserriei buruzko argazkien eranskina). OTAÑOZEIZAFAMILIA



Aurreko astean ateratako argazkia. Geratzen zen baserriaren zatian okupa modura hainbat pertsona bizi ziren. AIURRI

izan zen), eta beren semeak, berriz, Antonio Maria 21 urtekoa eta Jose Antonio 19 urtekoa. Eurekin bizi ziren amaren anai Jose Inazio Irazusta, 64 urtekoa, eta Gregorio Zugarain Zubiarrain sei urteko mutikoa. Nekazari-tzatik bizi zen familia.

1936an, Ikutza Berri baserrian Otaño Ezeiza familia bizi zen. Aurreko familiaren antzera, maizterra hau ere. Juan Batista Otaño Apaolaza eta Juana Ina-zia Ezeiza Arizmendi senar-emazteek eta Inazio (1910), Pedro (1916), Maria (1919), Pia (1922), Pantxika (1926) seme-alabek

osatzen zuten familia. Aita-ama nekazariak ziren (gizonak La-borden ere egiten zuen lan lo-rezain gisa), seme zaharrenak lantokietako langileak ziren, alabetako bat neskamea zen bat, eta azkenik, ikasleak ziren bes-te biak.

70eko hamarkadaren hasieran, Otaño Ezeizak baserria utzi behar izan zuen, jabearekin tratu ba-terako ados jarri ezinda. Ikutza Berri etxea hutsik geratu zen geroztik, eta suntsitzen joan zen poliki-poliki, jabeen utzikeria zela medio. Azken urtetan ba-serriaren aurriak besterik ez

dira geratu, eta joan den astean hondeamakinak erabat desegin-da utzi zuen.

Bitxikeria bezala, esan behar da bertako alabetako bat, Maria Otaño Ezeiza, Ikutza abizeneko Manuel Kaletxikiko gaztearekin ezkondu zela.

IKUTZA BERRI ANDOINGO BASERRIA AIPAGAI DA XVI. MENDEKO LIBURUETAN



Laborde anaiak, Manuel eta Enrique. (TRUTXUELO, Marta: *Laborde Hermanos: trayectoria histórica de una empresa*. Leyçaur 5 aldizkaria, 1998). REYES LABORDE

Ikutza Berri, Enrique Laborderen babes leku

Ikutza Berri baserriko hormek eta bere lursailek makina bat historia eta pasadizoren lekuko izan izango ziren seguruenik, mendeetan barrena. Horietako bat topatu dugu frankismoko biktimen alde lan egiten duen Oroituz elkarteak 2006an argita-ratu zuen Ahozko historia: oroi-menean lokartutako ahotsa li-buruan. 1936ko gerraren testuin-guruan gertatutako pasarte ho-rretan, Ikutza Berriko etxejauna zen Juan Batista Otaño agertzen da alde batetik, eta bestetik, An-doingo industriaren historian garrantzia handia eduki zuen Laborde lantegiko (1926-1977) zuzendari Enrique eta Manuel Laborde anaiak. Buruntza auzo-ko Antonio Lasak kontatu zuen gertakizuna:

“Enrique eta Manuel Laborde Werlinden, Laborde lantegiko nagusiak, joera politiko desber-dinekoak ziren. Bata karlista eta bestea nazionalista izan, hor non hitzartu zuten elkar laguntzea, gerra egoerak eskatzen zuenari begira: bata bestea defendatuko zuen, eta lantegia beti salbu ge-ratuko zen. Halaxe egin zuten lehenbiziko egunetan. Baina Errepublikari bizpahiru egune-ko bizitza geratzen zitzaizkionean Andoainen, giroa erabat nahas-tu egin zen eta Enrique artean anaiaren itzalean egon bazen ere, ez zen ziur sentitu; orduan Ikutza Berriko kupelean barruan ezkatatu zen, Bautista Otaño Apaolaza bere jabeak babestuta; gizon hori Laborde lantegiko lorezaina zen.

Frankistak herrian nagusitu zirenean, errelebua heldu zen: Manuel Zeraingo baserri batean

gorde zen, bolada batez. Bien bitartean, Enrique jendaurrera agertu zen, eta lantegiaren zu-zendaritzari heldu zion”.

Enrique ez zen andoaindar bakarra izan lehen astetan ez-kutatzea erabaki zuena, babes-teko neurri gisa. Errepublikaren sistema demokratikoaren agin-teak Andoainen iraun zuen bi-tartean, politikoki karlismora jotzen zuten herriko zenbait pertsona publiko (musikari, al-kate edo zinegotzi ohi, apaiz, enpresari...) Andoingo edo bes-te herrietako etxe, baserri nahiz bordetan ezkatatu zen; izan ere, beldur baitziren Errepublikaren aldeko milizianoek euren kontra errepresaliak hartuko ote zituz-ten, Nafarroan burutzen ari ziren erailketak mendekatzeko. Ihe-saldi horretan, herriko zenbait abertzalaren laguntza jaso zuten.

Egiari zor, Andoainen ez zen inor atxilotu, are gutxiago erail, indar faxistek uztailaren 18an kolpe militarra bultzatu zutene-tik Andoain abuztuaren 16an okupatu zuten arte; abertzale eta ezkertiarrek osatutako defentsa batzordeak agindu zuen ia bi hilabeteko tarte horretan. Aitzi-tik, ondoren eratu zen agintaldi faxistak egundoko errepresioa jarri zuen abian herriko aber-tzale eta ezkertiarren aurka, hurrengo hilabete eta urteetan luzatuko zena; ehunka desager-tu eta eraildako, atxilotu, frontean hilak, exiliora behartuak, ilea moztutakoak, lantokitik kanpo-ratuak... Hain zuzen, errepresio horretan, erantzukizun handia eduki zuten gatazkaren lehen asteetan ihesean ibilitako -maiz errepublikanoek lagunduta- kar-lista eta eskuineko horietako askok.

Herri barruko kontsumoa sustatzeko kanpaina

"Han edo hemen, erosi Andoainean" Udalak abiatutako kanpainak arrakasta handia izan du. Ekainaren 8an ilara luzeak sortu ziren Ondarreta kalean, 50 euro balio duten erosketa bonoak eskuratzeko. Bonoaz baliatzeko Andoainean erroldatuta egon beharra dago



Kanpainaren aurkezpen ekitaldia egin zuten Goikoplazan. AIURRI



Ilara luzeak ekainaren 8an, Ondarreta kalean. AIURRI

Bonoa eskuratzeko ilara luzeak

Kanpaina hilabete osora bideratuta bazegoen ere, egun gutxiko tartean mila bonoak saldu egingo dira. Ikustea besterik ez baitago astelehenean sortu ziren ilara luzeak. Ondarreta kalean Salkinek duen lokalera jendetza hurbildu zen. Bulegoa irekitzerako dozenaka ziren zain zeuden herritarrak.

Gauzak horrela, erosketa bono horiek tokiko merkataritzan eragin positiboa izango dute hurrengo egunetan. Behar beharrezkoa izango da, inoiz ez bezalako udaberria bizi izan baitute merkatariek eta ostalariek. Negozioak itxita eta herritarrak konfinamendu egoeran, sektorea erabat eten egin behar izan zuten.

Erredakzioa ANDOAIN

Aukera ona da. 25 euro ordaindu eta erosketarako bonoaren balioa 50 eurokoa bilakatzen da. Kanpaina Andoainean erroldatutako herritarrei zuzenduta dago, herri

barruko kontsumoa sustatu asmoz. 1.000 bono herritarren eskura jarri zituzten, astelehen goizean. Ekimen gehiago etor daitezkeela iradoki zuen Mari Jose Izagirre Sustapen eta en-

plegu saileko zinegotziak: "Berrindartze planak hainbat fase izango ditu, eta ekainaren 8an, kontsumoa suspertzeko lehenbiziko dinamika abiaraziko da". "Han edo hemen erosi Andoainean"

kanpaina Andoaingo Salkin elkartearekin lankidetzan egin da eta agerraldian ordezkariak duten lau alderdiekin parte hartu zuten. Andoaingo alkate Maider Lainezekin batera, kanpainaren

aurkezpenean Zulueta eta Santana oposizioko zinegotziek ere parte hartu zuten. Eta haiekin guztiekin batera, merkatariek ordezkatzuz, Maite Ramos Salkin elkarteko lehendakaria.



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



25 €

Harpidetza egiteko,
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da
BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago

Erredakzioa ANDOAIN

Aiurri Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpe ikastetxeko zenbait ikaslekin bildu da itzulerari buruz hitz egiteko. **Zer moduzkoa izan da ikasgeletara itzulera?**

Maialen Mendizabal: Arraroa izan da, azken finean, maskarekin banaka sartu behar gara ikasgeletara eta eskuak garbitu behar ditugu. Horrez gain, mahaia oso bananduta daude. Apur bat arraroa da ikaskideak maskarekin ikustea.

Claudia Zumelaga: Jendea maskarekin ikustea guretzako ez da ohikoa, arraroa egiten zaigu.

Beñat Setien: Azterketa egitera etortzen zara, baina azterketa bukatu ostean normaltasunean egoteko aukera duzu, beraz, ez da horrenbesterako.

Jon Ander Arabaolaza: Arraroa egiten zait. Ohiko egoerara ohituta, normaltasun berria bestelakoa egiten da.

Laura Alonso: Beharrezkoa izan da, etxetik lana egitea zailagoa delako. Egia da baliabide asko eduki ditugula, baina egokiagoa da klase presentzialak jasotzea.

Irati Ballano: Ez-ohikoa, baina ikasleentzat eta irakasleentzat errazagoa da klase presentzialak eman eta jasotzea.

Ikaskideekin harremana nolakoa izaten ari da?

Maialen Mendizabal: Ez-ohikoa, baina ikaskideak gertu daudenez lasai hitz egin dezakegu. Gainera, soilik azterketak egitera etortzen gara, ez ditugu klaseak; azterketak egin eta normalean etxera joaten gara, beraz, ez da horrenbesterako. Bestalde, gogorra egingo zaigu hautaketa probak prestatzera ikasgeletara itzultzen garenean.

Claudia Zumelaga: Azterketetan gaudenez, froga egin eta etxera joaten zara. Kalean elkartzen garenean, berriz, gertutasun gehiago dago eta lasai egon gaitzeko.

Laura Alonso: Ona. Maskarekin egoten gara eta mahaien artean beharrezko segurtasun distantzia mantentzen dugu.

Baliagarria izan da eskolara itzulerara?

Maialen Mendizabal: Etxetik klaseak jasotzen genituenean nire munduan egoten nintzen. Azken finean, ordenagailu baten aurrean zaudenean ezin duzu ikasgelan bezala egon. Orain ikasgelan, errazagoa da arreta jartzea. Errutina bat ez duzunean, oso zaila da ikasketak aurrera eramatea.



Laura Alonso. AIURRI



Jon Ander Arabaolaza. AIURRI




Beñat Setien. AIURRI

Ez ohiko ikasturte amaiera

Bigarren mailako batxilergoko ikasleek azterketak bukatu berri dituzte, eta bigarren tandarako prestatzen ari dira, hauta-probatarako. Guztiek baliagarritzat jo dute ikasgeletara buelta selektibitateari aurre egiteko klase presentzialak jasoko baitituzte



Claudia Zumelaga. AIURRI



Irati Ballano. AIURRI



Maialen Mendizabal. AIURRI

Claudia Zumelaga: Eskolaz kanpo klaseak jasotzen ditut eta ikasle gutxi gaudenez askoz ere hobeto moldatzen gara. Gainera, etxetik azterketak egitea ez zen egokia, arreta jartzea zailagoa baitzen. Oso baliagarria izan da itzulera. **Beñat Setien:** Klaseak ordenagailu aurrean egitea ez zen oso egokia. Azken finean, galdera egin eta zalantzak argitzeko zailtasunak besterik ez genituen. Gainera, ez dago klasean egon ohi den gertutasuna.

Laura Alonso: Zalantzak galdetzeko eta argitzeko beharrezkoak ziren

klase presentzialak. Ikasgai telematikoen bitartez galdetzea eta erantzunak jasotzea konplexuagoa zen.

Irati Ballano: Nire kasuan oso baliagarria izan da. Agian batxilergoko lehen mailan ez, baina orain selektibitateari aurre egiteko garrantzitsua izan da itzulera.

Beharrezkoa ikusi duzue ikasgeletara itzulera?

Maialen Mendizabal: Beharrezkoa izan da, Ikastolan askoz ere gehiago kontzentratzen baikara. Itzulerarekin txipa aldatzen zaizu.

Beñat Setien: Nire kasuan eskertu egin dut. Azken finean, askoz ere errazagoa da ikastolan bertan ikastea.

Jon Ander Arabaolaza: Beharrezkoa izan da, bai. Ikasketa txipa martxan jartzeko batez ere.

Irati Ballano: Bai. Zalantzak argitzea klase presentzialak garrantzitsua dira. Esaterako, mementoan duda edukiz gero galdetu dezakezu, baina telematikoki ez da horren erraza.

Selektibitatea uztailaren 6tik 8ra egingo dute.



Unai Ormaetxea. AIURRI

Haurren bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago

Punttuka Andoaingo bertso eskolaren eskutik, saioak ostegun arratsaldean izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

2020-2021 ikasturtean Andoaingo haurren bertso-eskolan izena emateko epea zabalik dago. 10 urtetik aurrerako gazteei zuzenduta dago eta saioak ostegun arratsaldean izango dira Bastero kulturgunean. Ikasle talde bakarra osatzen bada, 17:00etan hasiko lirateke. Eta bi talde osatuz gero, 18:00etan litzateke bigarren saioa. Saio bakoitzak ordubeteko iraupena izaten dut

Uda ostean gizarte bizitza normaltasunera itzultzen bada, bertso-eskolako ikasturtea urriko lehen astean abiatuko litzateke. Prezioari dagokionez, urte osoko kuota 80 eurokoa izango da. Ikasturtearen hasieran ordainduko da. Bertso eskolatik adierazi dutenez, "guk beti honakoa diogu: probatu nahi baduzu, bertso-eskola barrutik ezagutu, saio batera hurbil zaitetz, inongo konpromezurik gabe, eta ondoren hartu jarraitzeko edo ez jarraitzeko erabakia!"

Informazio gehiago, punttuka bertsoeskola@gmail.com e-posta helbidean eta 630 492 945 telefono zenbakian.

Ekimenari buruzko informazioa bideo bidez zabaldu dute. Unai Ormaetxeak aurkezturiko bideo hori Aiurri.eus webgunean ikusgai dago.

Udaleku irekiak Urnietan, "familien kontziliazioa kontutan hartuta"

Koronabirusak gizarte bizitza erabat baldintzatu badu ere, pixkanaka ohiko jardueretara itzultzeko ahalegina nabari da. Urnietako Udalak udaleku irekiak antolatuko dituela iragarri du, gurasoen kontziliazioa kontutan harturik



Udaleku irekietako begiraleak, artxiboko irudian. URNIETAKOUDALA

Jon Ander Ubeda URNIETA

Urnietako Udalak unean uneko egoerara egokitzeko ahaleginak egin ditu, eta uztailean begira udalekuen ordezkari aisialdi jarduerara antolatu du. Zaintzari loturikoak direla azaldu dute, ohar bidez: "Urnietako Udalak zaintzara bideraturiko Udalekuak antolatuko ditu aurtengo udari begira, familia askok kontziliaziorako dituzten arazoei erantzuna eman asmoz".

Haurren gogoko jarduerak burutzen ahaleginduko direla erantsi dute, ohar berean: "Udalekuen planteamendua desberdina izanagatik umeek atsegin dituzten aisialdi ekintza desberdinak garatzen saiatuko gara, betiere, momentuan momentuko egoera aintzat hartuta eta segurtasun eta prebentzio neurriak errespetatuta. Arrazoi horrengatik, 7-9 haurrez osaturiko taldeak sortuko dira eta multzoak eraikin desberdinetan kokatuko dira". 2009 eta 2014 urteen artean jaiotako eskaintza izango da. Talde bakoitzeko adin nagusiko pertsona bana arituko da begirale lanetan.

Eskaintzeko aukera dagoen kopurua baina eskaera handiagoa jasoz gero, aukeraketa zozketa bidez egingo da. Baina, aldiz, "Urnietako haurrekin plaza guztiak beteko ez balira herrian erroldatu gabekoek ere parte hartzeko aukera izango lukete". Lehenatasuna herrian erroldatuta dauden haurrak izango du, hasiera batean.

Eskaintza

- Epealdia: Ekainak 29-Uztailak 24.
- Ordutegia: 10:00-13:00.
- Haurrak: 2009-2014 urte bitartean jaiotakoak.
- Taldeak: 7-9 haurrez osaturikoak.

Izen-ematea, presentzialki

- Egunak: Ekainak 10-16.
- Tokia: Gazte Informazio Puntua.
- Ordutegia: 09:30-13:00.
- Informazioa: 943 33 39 73 / 943 00 80 33.

Izen-ematea, telematikoki

- Webgunea: Urnieta.eus

Osagarria:

- Zaintza zerbitzua: Aukerazkoa.
- Ordutegia: 08:30-13:30.
- Prezioa:
- Arrunta: 116,29 euro
- Bi anai-arreben kasuan: 102,61 euro
- Hiru anai-arreben kasuan: 92,35 euro
- Zaintza zerbitzuaren prezioak: 30 minutu: 20,52 euro. 60 minutu: 33,80 euro. 90 minutu: 39,84 euro. 120 minutu: 43,46 euro.

IZEN-EMATEAN LEHENTASUNA HERRIAN ERROLDATUTAKO HAURRAK IZANGO DU

Segurtasun neurri guztiak hartuta

Udalekuek iraun bitartean segurtasuna bermatzeko hainbat neurri hartuko ditu Urnietako Udalak. Honakoak:

- 7-9 haurrez osaturiko taldeak sortuko dira.
- Talde bakoitzak hezitzaile bat izango du.
- Ekintzak herriko eraikin desberdinetan gauzatuko dira: Arantzubiko ludoteka, Errekalde kaleko ludoteka zaharra, Egape ikastolako LH-ko eraikina, Egape ikastolako HH-ko eraikina, Egape ikastolako BH-ko eraikina, Udal Musika eskola, Sarobe arte eszenikoen gunea eta Xoxokako eskola zaharra.
- Sarrera eta irteera mailakatuak egingo dira, ordutegi desberdinekin.

- Guraso, tutore edo arduradunek haurra lagunduko dute egokitu zaion eraikinerako goizero.
- Haurrei temperatura hartuko zaie sarreran, eta sukarra izanez gero etxera joan beharko du. Horrengatik oso garrantzitsua izango da guraso, tutore edo arduradunak haurra sartu arte itxarotea.
- Eraikinerako sartu aurretik gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte haurrek.
- Derrigorrezkoa izango da musukoa erabiltzea 2 metroko distantzia ezin bada gorde, beraz, haur guztiak etxetik ekarri beharko dute musukoa, eta sarreran erakutsi.

- Haur bakoitzak egunero garbitu eta desinfektatuko den pantaila bat izango du, une batzuetan tarteko distantzia gorde badaiteke erabiltzeko eta musukotik atsedena hartzeko.
- Goizean zehar, beti saiatuko gara, dinamika eta joko batzuk distantziarekin egiten, musukorik edo pantailarik gabe, hau da, 2 metroko araua errespetatuz.
- Printzipioz, haur bakoitzak harremana bere taldeko haurrekin eta begiralearekin bakarrik izango du. Gelan egiten diren jardueretan bere taldekideekin soilik egongo da.

ZAZPI ETA BADERATZI HAURREZ OSATURIKO TALDEAK OSATUKO DITUZTE, HEZITZAILE BANAREKIN

- Familiei eskatzen zaie zuhurtzia handiz jokatzeko, eta haurra gaixotuz gero, ahalik eta lasterren horren berri ematea, protokoloak ezarritakoa lehenbailehen bete ahal izateko.
- Haurrek ezin dute inolako jostailurik eraman etxetik.
- Haur bakoitzak bere hamaiketako eraman ahal izango du.
- Haurren bat edo hezitzailearen bat Covid-19rekin gaixotzen bada edo susmoa badago, Osakidetzako protokoloak jarraituko dira, eta egoeraren arabera gerta liteke talderen batean udalekua bertan behera geratzeko. Kasu horretan, kuotaren zati proportzionala itzuliko litzateke.

HAUR BAKOITZARI TENPERATURA HARTUKO ZAIO, ETA SUKARRA IZANEZ GERO ETXERA JOAN BEHARKO DU

"Elkarlaguntza sarea sustatu nahi dugu"

KABIGORRI URNIETAKO EKIMENA

Kolektibo politiko gisa definitu dira, eta azken asteetan eurekin harremanetan jartzeko eta aholkularitza eskaintzeko afitxak banatu dituzte

Jon Ander Ubeda URNIETA

Kolektiboak berak eskatuta, elkarriketa posta elektronikoki bidez egin da.

Zer da Adargorri Kolektiboa, pandemian sorturikoa ala lehendik zetoarren? Aurkeztu ezazue zuen burua.


Adargorri lehendik zetoarren, bai. Kolektibo politiko bat gara, herrian lanketa lokala egiteko sortu zena, perspektiba eraldatzaile batetik. Ez dugu inposatutako errealitate zapaltzailea onartzen. Egoerari buelta emateko, protestak, aisialdi alternatiboa, formakuntzak,... antolatzen ditugu. Herri mailako beste eragileekin elkarlana sustatzen dugu (Poxta Zahar, Gazte asanblada, ...). Kolektibo asanblearioa gara.

Elkarlaguntza taldea zarete eta bizilagunei laguntzeko prest agertu zarete. Zein da ekitera bultzatu zaituzten asmo nagusia?

"Elkarlaguntza sarea" sustatu nahi dugu, Adargorritik kanpo. Kapitala itxialdia baliatzen ari da langile klaseari are gehiago erasotzeko: kaleratzeak, prekarizazioa, jazarpen poliziala, beldurraren hedapena... Horren aurrean, laguntza eskaini nahi duten pertsonen eta laguntza jaso nahi dutenen arteko zubi lanak egitea beharrezkoa iruditzen zaigu, modu herrikoi batean. Izan ere, ez dugu uste udaletxeak lan hori bete duenik baliabide gehiago edukita ere.

Nork jo dezake zuengana? Eta dagoeneko zuengana jo dutenen artean zein da eskaera nagusia?

Edonork. Interesa duen orok, alarma egoera dela eta lanik gabe geratu denak, ERTE batean dagoenak, multa jaso dutenak, gurekin batera laguntzeko prest dagoenak, pairatzen ari garen egoeraren inguruko informazioa nahi duenak... Modu aktiboan ulertu behar da elkartasuna: eman eta jaso.



Kalean topa daitekeen afitxatako bat. AIURRI

"LAGUNTZA ESKAINI NAHI DUTENEN ETA JASO NAHI DUTENEN ARTEKO ZUBI LANA BEHARREZKOA DA"

Oraindik ez dugu eskaririk jaso eta hainbatek laguntzeko prest daudela esan digute.

Noiztik ari zarete lanean Urnietan? Zer ikusi duzue hilabeteotan, zuen esperientziatik?

2018an hasi ginen lehenengo pausuak ematen, oso xumeak. Herri itzali bat ikusten genuen, piztea asko kostatzen zaiona. Lotarako herria, hein handi batean. Bestalde, nahiz eta aurrekari esanguratsuak izan, protestarako eta antolatzeak ohitura baxua dugu egun Urnietan.

Esaterako, Erraustegiaren aurkako protestak, Zaldibar auziaren salaketa, aisialdi alternatiboaren sustapena eta G7 bilkuraren eta okupazioaren inguruko formakuntzak antolatu ditugu.

"INJUSTIZIEN AURREAN BIZILAGUNON ARTEKO ELKARTASUNA OINARRIZKOA DA"

Azken hilabeteetan Udala penagarri ibili da (udaltzainek multa asko, komertzioei laguntza eskasak) eta urnietarron antolatzeak ohitura baxua dela eta ez gara gai izan erantzun sendorik emateko egoera honi herri bezala.

Horretaz gain, nazio mailan ditugun autonomia egituren edota elkargoen boterea hutsala da. Madrid eta Parisen erabakien aurrean eragin eza dugula begi bistakoa da.

Aholkularitza juridikoa eskaintzen duzue. Arazoak antzeman dituzue salbuespen egoeran?

Bai. Argitu beharra dago alarma egoeran zehar ipinitako isunek ez dutela oinarri juridikorik. Espainiar legedian ez dago alarma egoera haustearren inguruko zehaztapenik, eta haien

zuzenbidearen arabera, ezin da zehaztu gabeko esparrurik zigoritu. Hau, noski, hedabideek eta erakunde publikoek ez dute aipatu. Aipatzekoa da autoritatearen kontrako desobedienciaaren aplikazioa (Mozal Legearen 36. artikulua) isunak jartzerako garaian. Alde batetik, Segurtasun Juridikoaren Printzipioaren eta Legezketasun Printzipioaren urraketak begibistakoak izan dira. Alegia, interpretazio zabalak eta arbitrarioak erabili dira desobediencia aplikatzeko. Bestetik, salbuespeneko interpretazioek Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren neurritz kanpoko eta behar beste arrazoitu gabeko jarduketak eragin dituzte, eta horiek epaile eta berrero ukiezin bihurtuz, zigorgabetasun osoarekin jardun dute.

Errepresioari buruzkoa da zuen eskaintzaren lehen puntua. Poliziaren aldetik gehiegikeriak egon direla diozuenean, isunaz haratago doan jardueraz ari zarete?

Bai. Esan bezala, testuinguru honetan isunak gehiegikeriak dira, oinarri juridikorik ez dute eta. Hortik haratago, bizilagunekin eta ezagunekin hizketan, pasarte gogorrek entzuten dira: porra eskuetan pertsonen atzetik, 30.000 euroko isunen mehatxua adingabekoei... ekintza gaitzesgarriak erabat. Oinarriko eskubideen urraketak ere azpimarratu nahi ditugu; Berdintasun eta diskriminazio ezaren eskubideak, hain zuzen ere. Izan ere, Euskal Herriko auzoetan profil etnikoaren birtarteko identifikazio polizialak eta atxilotetak eman dira.

Jarrera oldarkor, erasotzaile eta arrazista horiek guztiak arrazoirik gabekoak dira.

Zeintzu dira kezka gehien eragiten dizueten kolektiboak?

Gehien kezkatzen gaituena eza gutzen ez diren egoera larrienak dira, alegia, ezkutuan geratzen diren egoerak: hilabete amaierara ezin iritsi, behar adina elikagai ezin erostea,... Langa-bezia edota pobrezia sistemaren errua direla argi eta ozen esan behar da.

Zein da zuen ustez egoera zail honetatik irteteko alternatiba?

Argi dugu injustizien aurrean bizilagunon arteko elkartasuna oinarritzakoa dela. Eta esparru lokaletik haratago, alternatiba gizartearen errotiko eraldaketatik iritsiko da.



Etxeberri plaza. AIURRI

Izaera sozialeko etxebizitzaren alokairua

Udalak Etxeberri plazan dauden 10 etxebizitza alokairuan eskaintzeko prozedura abiarazi du

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak, dekretu bidez, Etxeberri plaza 15. zenbakian dauden babes publikoko 10 etxebizitza alokairuan esleitzeko prozedura hastea erabaki zuen. 2 eta 3 logelako etxebizitzak dira, eta horietatik bat mugikortasun urria duen eskatzaileei zuzenduta dago. Beste bi etxebizitza premia berezia dutenentzat eta beste lau gehiago 36 urtetik beherako eskatzaileentzat gordeko dira. Kontratuek urtebako iraupena izango dute, alokairua 5 urtera arte luzatzeko aukerarekin.

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte: Etxebide zerbitzuan alta emanda egotea, adin nagusikoak izatea eta etxebizitzarik ez izatea. Horrez gain, ezinbestekoa izango da Urnietan erroldatuta egotea, gutxienez bi urteko antzinatasunarekin.

Prozesuan parte hartu nahi duten pertsonen izena emateko aukera dute ekainaren 26 arte. Xehetasun guztiak Urnieta.eus webgunean daude.

Udalak deialdi honetatik sortzen den itxaroen zerrendara jo ahal izango du, oinarri hauen xede diren etxebizitzetaz gain, etorkizunean zortzi urteko epean alokairuan izan ditzakeen beste udal-etxebizitza batzuk esleitzeko.

Andoni Urbistondo URNIETA

Adrian Garciak erabaki du erreportaje honen lerro burua. Turismo teknikaria da, ogibidez, baina kazetari izandakoa hamar-kada oso bat (34 urte). “Oria ibaia pasatzen den herri eta eskualde bateko turismo teknikariak gara, ezta?”, argudiatu du. Baiezkoa eman dio Olatz Illarregik (40 urte), eta Aiurriko irakurle askok Tolosaldea eskualdearekin duten harreman emankorra gogoratu. Illarregi Tolosaldea Garatzen erakundeko turismo arduraduna da, eta Garcia Orioko Udaleko turismo, merkataritza eta ostalaritza teknikaria.

Zer egiten du, bada, turismo teknikari edo arduradun batek? “Turismoa eta enpresa ikasketetan lizentziatu, aurrena”, dio barrez Olatzek (Adrian ere lizentziatua da kazetaritza eta turismoan). Garapen agentzien lan makroa betidanik gustuko izan duela dio, eta 13 urte atzera hartu zuen erabakiarekin jarraitzen duela aurrera. Gauza asko aldatu omen dira 13 urte horietan: “Hasi nintzenean sustapena egiten zen batez ere: paperezko promozioak, ferietara joan eta beste. Ni hasi nintzenean Tolosaldea eskualdean turismo alorrean indarrean zegoen Plan Estrategikoa garatzea eskatu zidaten: harremanak landu turismo enpresekin, dinamizazio lana, batez ere. Formazioa eskaini, turismo gastronomikoa, BTT mendiko bizikletako zentro bat, Txindokiko Itzala abentura parkea Larraitzen... Saretze bat, eskualdeak turismo alorrean zer eskainia edukitzeko”.

Tolosaldeak 28 udalerrri ditu, eta 48.000 biztanle inguru. “Berezia da, herri guztiak koordinatu behar baitira. Herrien erdia baino gehiago 500 biztanle baino gutxiagokoak dira, eta ez dute baliabiderik turismoa euren kabuz garatzeko, teknikari bat kontratatatu eta turismo bulego bat izateko”: Tolosaldean Tolosa hiriburua da, turismo teknikaria duen herri bakarretakoa. Herri batetik bestera etengabe mugitzen da Olatz.

Oriok 6.000 biztanle pasa ditu. Turismo politika aplikatu eta garatzen du Adrianek: “Produktu erakargarria sortu bisitariarentzako, eta harremana saretu ostatu, jatetxe eta beste alorrekin”. Orion ez da egon turismo teknikaririk urtetan, eta orain Plan Estrategikoa bat garatzen mur-

Oria ibaiko turismo teknikari urnietarrak

OLATZ ILLARREGI ETA ADRIAN GARCIA TURISMO TEKNIKARIAK

Tolosaldea Garatzen erakundeko eta Orioko turismo teknikariak dira, hurrenez hurren. Olatzek 13 urte daramatza, dagoeneko; Adrian hasi berria da, ia-ia



Olatz Illarregi. AIURRI

gilduta dabil. Orioko Turismo Bulegoko datuen arabera, 11.000 bisitari jasotzen ditu Oriok urteko, “baina bulegoa kasko historikoan dago, eta ez du zehatz-mehatz azaltzen Oriora etortzen den jende guztiaren kopurua, bisitari asko hondartzako gunera bakarrik joaten delako. Kanpinaren datuek diote, kopuru hori aise gainditzen dela kanpinan bakarrik, urteko epe jakin batean”. Adrianek dioenez, Plan Estrategikoaren helburua hondartzara hurbiltzea da, hondartzara hurbiltzen den bisitariak herrian ere gastua egin dezan.

Euren gainera arduradun politikoak dituzte. Normalean herriko alkatea. Tolosaldean Lehendakari bat dute, lau urtez behin izendatzen dena, eta azken legegintzaldian izan ezik, besteetan Tolosako alkatea izan da (eskualdeko biztanle erdiak bertan bizi dira). “Orain Zizurkilgo alkatea da lehendakaria, EH Bildu nagusitu zelako eskualdean”, zehazten du Olatzek. Epe luzera egiten duten Plan Estrategikoa urteroko Gestio planean banatzen da, eta plan horretan aurrekontu

zehatz bat planteatu eta garatzen saiatzen dira. Orion ze turista mota erakarri nahi den ere aztertzen da, ze turismo mota helarazi nahi zaion bisitariari, Plan Estrategikoa baten baitan, “baina Plan hori arduradun politikoek erabakitzen dute, eta teknikariorik garatzea dagokigu”.

Eta zer ote da Plan Estrategikoa bat? Illarregi: “Epe luzera Tolosaldea eskualdea nola garatu nahi duzun erabakitzea. Diagnosi bat egiten da, zerk egiten gaituen berezi erabaki. Plan potoloak izaten dira, lau urtekoak normalean, eta gero epe motzean plan horiek moldatzen joaten zara”. “Ezin duzu modu antolatu gabeen turistak erakartzen hasi. Edozein enpresak du Plan Estrategikoa, marketin plana. Hori eginda, ekin-tza plan bat egiten da, sektore guztiekin adostuta, helburuak lortu ahal izateko”. Alegia, ez direla bote prontoan egiten diren plan soilak, ondo justifikatutako ekimenak baizik. Adrianek, azalpen zehatzagoa: “Demagun Orio Ipar Euskal Herriko bisitarietara nola saldu erabaki behar duzula. Asko etortzen dira, eta sosa uzten dutenak dira. Horiei begira kanpaina jakin bat egin-go da, eta hori egiten dugu”.

Tolosaldea eta Orio saltzen

Andoain, Urnieta eta Beterri bailarako biztanleriari Tolosaldea eta Orio saltzeko eskatu diegu bi teknikariei. Adrian: “Eskualde oso interesgarria da Orioren-tzat Tolosaldea, barne turismo asko erakartzen baitu Oriok. Goierrin bezala. Hango euskara entzutena da Orion”. Hondartzako bisitariak dira nagusi Kantauri Itsasoko herrian, eta Udalean egoera horri buelta ematen saiatzen ari dira: “Alegia, ez garelako hondartzara daukan herri soila. Badugu itsas ondare izugarria, XVI. mendetik XIX. mendera puntakoa ontzigintzan, ibai handi bat daukagu, Tolosak daukan bera, ibaiko jarduerak sustatzen dituen enpresa bat, familia kanpin egokia, parrilla jatetxe onak, herri bizia, udako kontzertuak...”.

“TOLOSALDEAN, ESKUALDE OSOAN, INDUSTRIAK PISU HANDIA DU ORAINDIK”

OLATZ ILLARREGI, TURISMO TEKNIKARIA

“ESKUALDE MAILAKO TURISMO BULEGOTIK SARETZE LAN BAT EGIN BEHAR DA”

OLATZ ILLARREGI, TURISMO TEKNIKARIA

Tolosaldeak berezkoa omen du harremana Andoainekin. Olatz: “Nire ustez bertako jendea errazago joaten da erosketak egitera Tolosara, Donostiara baino. Joe- ra historikoa da. Guk natura dugu, Hernio ingurua, Zelatungo hamaikakoa... Zer esan Aralar- ko Parke Naturalaz, Txindoki mendia, Abaltzisketan, askok Goierrin dagoela badiote ere, Larraitzko tirolinak, Arritzaga- ko ur putzuak... mendizaleak ezagutzen ez dituen txoko eder asko, Pirinioetara joan gabe”. Leitzaran ibaiaren arroarekin ere gogoratu da Olatz, Berastegi aldean, eta gastronomia, noski: “Nor ez da joan Albizturrera babarrun batzuk dastatzera?”. Mendizalea ez denarentzat, To- losan, larunbat goizeko ferriako giro bikaina nabarmentzen ditu, eta “txikientzat, txotxongilo museoa, edota laster irekitzea espero dugun Tolosako Alde Zaharreko Santa Maria Elizako artxiboa, eta kanpandorrerako bisita. Altxor ezkutuak ezagu- tzera gonbidatu nahi nuke bisi- taria”.

Turismoaren inpaktua handia da Orion. Dozenatik gora ostatu, nekazal turismo etxeak, hotelak, pentsioak... denera 15 bat aloja- mendu bai, kanpina ere badugu... “Hondartza ondoan dagoen ho- telean bakarrik 33 langile ari dira lanean”, dio Adrianek. “Ja- tetxeak ere asko dira, 41. 60 den- da baino gehiago, eta beste hain- beste bestelako zerbitzuak es- kaintzen dituzten komertzioak. 120 komertzio inguru, 6.000 lagun pasa dituen herrian. Turismoak denei eragiten die, neurri han- diagoan edo apalagoan”. Orio tradizioz bisitari asko jaso izan duen herria da. Done Jakue bidea herriko Alde Zaharretik igarotzen da, eta kanpina ere udal kudea- keta daukan bakarretakoa da, 1980ko hamarkadaz geroztik. Xehetasun kurio- soa eman du Adrianek, “Orioko ereser- kian bisitariak eta kanpina aipatzen dira, garbi dago turismoa oso garrantzitsua dela Orion”.

Tolosaldeak 45 ostatu eta 500 oheko gaitasuna du. Barne Pro- duktu Gordinari dagokionez, Gipuzkoan %7a dela diote kopu- ruek. “Gure eskualdean indus- triak pisu handia dauka oraindik, baina pixkanaka turismoa eta zerbitzuak indarra hartzen ari dira”, Olatzen esanetan. “Eskual- deko jatetxe ezagunenek esan izan digute euren fakturazioko

%60-70 atzerriko bisitariak uzten dutela, batez ere frantziarrak. Baina Tolosaldean turismoak ez dauka kostako herri batek dau- kan indar bera, noski”. Bisitaria eta turista ezberdintzen ditu Illarregik: “Turista gaua pasatzen duena da, eta bisitaria, eguna pasatzen duena. Gurean egun pasa egiten duten bisitari asko daude, batez ere herri txikietako ostatu- etan bazkaltzen duten gi- puzkoar asko. Gurean turista perfila berezia da”.

Covid-19a: Katastrofe handia

Turistikoki katastrofe bat supo- satu omen du Orion pandemiak. Adrian: “Egun batetik bestera komertzioak, hotelak, tabernak eta beste itxi ziren. Diru sarre- rari- rik gabe geratu dira”. Egoe- ren gestioa Espainiako Gobernuak egin duela dio Adrianek, “baina arauak indarrean jartzea Udalei tokatu zaigu. Eta herritarren-

gandik gertuen gauden erakun- deak Udalak garenez, buruhaus- te franko izan dugu”. Alde onik ere izan omen du krisiak: “Bes- telako turismo bat garatzeko aukera ikusi dugu, ez hondar- tzakoa soilik: itsas eta natura ondarea ezagutaraztea, adibidez”.

Tolosaldean ere hasiera antze- koa izan omen zen. Dena itxi zen, bezperan erreserba guztiak bertan behera utzi zituzten be- zeroek... “Sentimendu kontra- rriak izan ditut. Ostalaritzako langile asko ERTE-n izan dira, soldatak jasotzeko arazo asko, enpresarien deiak jaso izan di- tugu diru laguntzak noiz jasoko zituzten galdezka... frustrazioa sentitu izan dut, ezin genuelako laguntzarik eman, Estatuarena zen ardura. Askok gaizki pasa dute, eta pasatzen ari dira. Ez- jakintasunak urduritasuna han- dia sortu du, eta informazioa iristen ari den neurrian, kontua

hobetzen ari da apurka”, Olatzen iritziz.

Adrianek ere bitartekari izan behar horrek buruko minak eman dizkiela onartzen du: “Espainia- ko Gobernu- a Jaur- lartza- ri la- guntzak iragartzen hasi zenean, guk jakinarazi genituen, baina laguntza horiek ez dute funtzio- natu. Gero, herri batzuetan al- txortegia beste batzuetan baino beteagoa zegoen, eta sos gehien zutenek euren kabuz erantzun ahal izan dute, laguntzak jaso baino lehen, eta besteek ez. Orio bezalako herri txikiek ezin izan dute laguntza horiek bizkar gain hartu, eta enpresaria, noski, ha- serretu egin da, beste herri bat- zuetan laguntzak jaso dituztela jakin dutenean. Arauak ere iri- tzirik eskatu gabe etorri zaizki- gu udal- errietara, eta horiek kudeatzea, erabaki zuzena hartzea ez da erraza. Esan nahi dut, edu- kieran %30, %50... Batzuetan posible da, besteetan ez... Hain- bat neurri ez ziren aplikagarriak, eta hori merkatariei jakinaraztea, debekuak edo mugak jartzea ez da erraza, jende askoren egune- roko ogia jokoan baitago”.

Illarregiren ustez egoera egun batetik aurrera irauli zen: “Pedro Sanchez Espainiako Gobernuak ‘preparad las vacaciones’ hitz magikoak esan zituen. Bat- batean erreserbak egiten hasi zen jendea!”. Baina oraindik zalantza asko daudela dio Adria- nek. “Kanpinean, adibidez, au- rreikuspena abuztuan %30ko okupazioa izatea da, zifra polita, baina segurtasun protokoloak betetzeko langile kopurua hiru- koiztu beharko dute agian. Po- sible da? Zaila, noski. Laguntza eman beharko genieke, baina esan bezala, Orioren baliabide ekonomikoak direnak dira. Uda- lari eskatu beharko diote lagun- tza, noski, baina Udalak lagundu ahal izango duen ikuskizun dago”.

Hondartze- kin ere duda asko dituzte Orion: “Hondartzak kon- trolatu behar omen dira, hori da gure buruhausterik handiena, baina herri txikietan akaso giza baliabiderik ezingo dugu bide- ratu, ez dira nahikoa izango. Orio, Getaria, Deba... Zarautzen

edo Donostian akaso giza bali- abideak eduki ditzakete, baina herri txikietan zailagoa da. Gi- puzkoan sorosleak ere Udalak jartzen ditu, ez Aldundiak Biz- kaian bezala. Gerta liteke hon- dartzetan turismoak ez, segur- tasun eta osasun neurriek izatea lehentasuna, protokoloak bete- tzeko zailtasunak izan ditzake- gulako”. Orioko hondartza dina- mikoa da, momentuz, ezin da eguzkirik hartu edo liburu bat irakurtzen egonean egon. Bainu bat hartu daiteke, paseo bat eman, baina bertan orduak eman ez, momentuz. Hondartza denbor- dia irekitzen denean zehaztuko da egoera. Adibide polita eman du Olatzek, Larraitzko Txindo- kiko Itzala Abentura Parkeko arduradunek daukaten dilema- rekin. “Eskalada traste guztiak garbitu, desinfektatu behar di- tuzte, erabiltzen diren aldiro? Horrek langile gehiagoren beha- rra dakar, edota nahi beste be- zero hartzeko ezina”. Birala egin da sare sozialetan, Abaltzisketa- ko alkateak Facebook-en jarri zuen bideoa. 600 auto eta kara- bana pilatu ziren Larraitzko aparkalekuan, eta bide bazterrean, eta tamainako jende oldea nola demontre kudeatu behar ote zuen galdetzen zuen, 333 biztanleko herri txikia izanda.

Lanez lepo ibiliko dira bai Olatz, baita Adrian ere. Olatz gustura ariko da, oso lan dinamikoa egi- ten duelako, “etengabe aldatzen dena, proiektu berriak dakartza- na”. Horiek kudeatzea halako estresa eragingo diola jakitun da, “jendeari tiraka aritu behar- ko naizelako, ekimenek aurrera egin dezaten”. Zorteko kontside- ratzen da, dena den, Olatz, duen lanarekin. Lanaren alde kreati- boa jartzen du balioan Adrianek ere: “Erronkaz betetako jarduna da, eta jendearekin harreman estua daukagu: tabernariak ka- letik geratzen zaituzte, eta hori polita da”. Kendu zer kenduko liokeen ere garbi du kazetariak: “Burokrazia. Erakunde publiko batean lan egiteak osagai hori du, eta ohitzea falta zait, pazien- tzia pixka bat edukitzea”. Behar- ko dute!



Adrian Gracia. AIURRI

“GARBI DAGO TURISMOA OSO GARRANTZITSUA DELA ORIO HERRIAN”

ADRIAN GARCIA, TURISMO TEKNIKARIA

“TURISMO TEKNIKARIARENA ERRONKAZ BETETAKO JARDUNA DA”

ADRIAN GARCIA, TURISMO TEKNIKARIA



Erremonteko finalaren ostean aurkarien arteko besarkada. UTS KOMUNIKAZIOA

"Erremontea kirol ikusgarria, bizia eta oso teknikoa da"

JON IRAZU ETA AITOR OTAEGI ERREMONTISTAK

Bi gazteek Hernaniko Galarreta frontoian egiten dituzte saioak. Pandemiaren osteko normaltasun berriari eusteko entrenamenduak berrartzeari ekingo diote laister.

Mikel Arberas ANDOAIN

Jon Irazu eta Aitor Otaegi 20 eta 23 urteko erremontistak dira. Betidanik frontoiari lotuta egon dira. Zenbait kirol praktikatu dituzte, baina, egun batean, erremontea probatzeko aukera eduki zuten, eta, orduz geroztik, kirol hau praktikatzan dute. Jada bi pilotariek maila ona erakutsi dute hormen artean.

Adunan hazitakoak izanda betidanik egon zarete frontoiari lotuta?

Bai. Umetan eskolan hasten zaren frontoia bakarrik duzu

eskura. Gure garaian behintzat ez zegoen futbol zelairik ez eta saskibaloikorik. Frontoian, bizikletan eta parkean ibiltzen ginen. Egun guztia frontoian pasatzen genuen, ez baitzegoen aukera askorik.

Zergatik erremontea?

Irazu: Eskuz jokatzan nuen, baina azken aldian minarekin jokatzan nuenez, nazkatuta nengon. Partidak jokatzan nituean berriro ere eskuko minarekin hasten nintzen. Beraz, geldialdi asko egiten nituen eta

ez nuen behar bezala pilotaz gozatzeko aukera eduki.

Egun batean lanean nengoen, pentsatzen jarri eta zerbait berria probatzea otu zitzaidan, eta orduantxe Aitorrek erremontean hasteari buruz hitz egin zidanez, probatzea erabaki nuen.

Imanol Ansa entrenatzailea ezagutzen nuen, ari esan, eta erremontean hasi nintzen. Gainera, lehenago pilotan jokatzan nuenez, segituan hartu nion tamaina.



Jon Irazu eta Aitor Otaegi erremontista adunarrak. AIURRI

Otaegi: Niri betidanik gustatu zait frontoieko giroa eta honi dagokion guztia. Nik Ansa txikitatik ezagutzen nuen pilotan batera jokatzan genuelako; eta Santakrutzetan erremontean hasteko animatu ninduen. Egun horietako batean kontaktuan jarri nintzen Imanol Ansarekin eta Galarretan saio bat egin eta probatzeko hitzordua jarri genuen.

Zenbat zarete erremontean jokatzan duzuenak?

Hasiera batean zortzi kidek entrenatzen genuen, eta orain bizpahiruk lanagatik utzi behar izan dute. Asko dira erremontean hasten direnak, baina segituan uzten dute, edonork ez baitio tamaina hartzen kirol honi. Pazientziaz hartu beharreko kirola da. Entrenamendu asko egin behar dira modu egokian jokatzan hasi aurretik; Imanol Ansa eta Ander Goikoetxea dira entrenatzaileak.

Txapelketak jokatzan dituzue?

Orain arte ez ditugu txapelketa asko jokatu; Oriamendi afizionatuen txapelketa eta buruzburuzko txapelketa jokatu ditugu. Azken hau, esperimentu moduko bat izan zen.

Elite mailan, berriz, Oriamendi promozio txapelketa, buruzburuko, sagardo txapelketa eta Aurretiko Kutxa txapelketa jokatzan dira. Aurrerago EITB Txapelketa ere jokatuko dute;

"PAZIENTZIAZ HARTU BEHARREKO KIROLA DA. ENTRENAMENDU ASKO EGIN BEHAR DIRA"

bost hastez telebistan botako dituzte txapelketako partidak.

Nola ikusten duzue erremontea etorkizunari begira?

Etorkizun zaila edukiko du erremontea. Telebistan gutxitan botatzen dituzten kirolak aurrera eramatea ez da batere erraza. Gainera, erremontea zuzeneko kirol gisa ikusgarria da, baina telebistan asko galtzen du, ez da berdin baloratzen. Zuzeneko partidetan hobeto hautematen da pilotek hartzen duten abiadura edota kirol hau jokatzeko zailtasuna.

Egia da ere Gipuzkoan ez dagoela erremontearikiko afizio handia, Nafarroa aldean zaletasun gehiago dago. Galarretara joaten direnen gehiengoak pertsona helduak dira. Jende gaztea gerturatu beharko litzateke kirol harrigarri hau zuzenean ikustera, asko harrituko lirateke.

Etorkizun batean profesional mailara pausua emateko aukera ikusten duzue?

Baiez esango genuke. Erremontea pilotariak behar ditu eta, oraingoz, gogor entrenatzen jarraitzeko asmoa dugu, beraz, aukera ikusten dugu. Horrez gain, pentsatzen dugu hobetzen goazen heinean gehiago estutuko gaituztela eliterako pausoa emateko. Modu iraunkor batean jarraituz gero aukera dugula uste dugu.

"ERREMONTA ZUZENKO KIROL GISA IKUSGARRIA DA, KIROL BIZIA ETA OSO TEKNIKOA DA"

Andoni Urbistondo URNIETA

Manttaleko lepoa bezain toki ederragorik gutxi, Urnietan (ofizialki Mantele). Bidegurutze gune: hegora Adarramendi, mendealdera 1989an eraikitako izen bereko aterpea, iparrera Abalarri harritsua, eta ekialdera Onddiko *kortafuegos*-a. Belazea eta inistorra nonahi, Sansonarrria ere gertu. Eta aterpea txukun. Abereentzat itxita, barruko bi gela handietan sar ez daitezten. Mahaiak kanpoan, ur apur bat ematen duen iturri bat ere bai. Paraje ezin hobea pago tartean ordu batzuk lagun edo ezagunekin pasatzeko. Edo nahi bada, gaua ere, bai, euri eta hotzetik salbu. Azken asteetan ohikoa ez den hotza egin badu ere.

Eta ez ekaineko lehen hamabostaldia freskotik doalako, Manteleko aterpeko leihotako kristalak eta heldulekuak txikitu egin dituztelako baizik. Manteleko aterpeak badu ulertzen zaila den testuinguru beltza. Gizakiek gizakientzat egina, eta gizakiek hautsia, kaltetua, gutxietsia. Zergatik ote gara, edo dira, hain ankerrak? "Baten bat mozkortuko zen, eta bada-kizu, ganberrismo hutsa". Mozkortzeak norbait denek erabil dezakegun aterpeko leihoak haustera eraman dezakeenik ere sinestea kosta egiten da, ezta? Galdera erraza baita: Zergatik? Eta erantzuna zaila: Ez dauka.

Akzioa egin, harrokeria, txorakeria... batek daki. Mendira joan eta eraman duen zerrikeria mendian uzten duena bezala, berarekin berriro etxera eraman orde. Udalak konpondu egin beharko du leihoa. Baina etorriko da beste arduragabe bat, eta hautsiko du berriz. Eta egunen batean hautsi/konpondu, konpondu/hautsi prozesua eten egingo da, eta orduan basoak, edo edukazio faltak aterpea irentsiko du. Eta halakorik zergatik gertatu den galdetuko diogu geure buruari. Eta ez dugu erantzunik bilatuko.

Manteleko lepoko eta Antsoko Etxolako hainbat seinale ere hautsita edo zulatuta agertu dira azken astetan. Antsoko Etxolan erdiz erdi txikituta. Seinale horiek zorutik bi metro pasara kokatuak daude. Alegia, hausteko nahia eduki behar da hauts daitezten. Harrikadaka, makilen batekin... edo eskopetako tiroa



Manttale edo Manteleko aterpea. AIURRI

Aterpeko leihoak hautsita

Manttale edo Manteleko lepoko eta Antsoko Etxolako seinaleztapenak ere hautsi dituzte, ziur aski eskopetaren batekin. Nori okurritzen zaio halakorik egitea? Ze asmorekin?



Txikizioa egin dute bertan. AIURRI

rekin. Seinaleak hausteko eman egin behar zaio kolpea, indartsu. Pertsonak pentsatu egin behar du nola egin. Manteleko lepoan, seinale batek, erdi-erdian, kartutxo baten tamainako zuloa dauka. Kasualitatea. Igual norbaitek taladroa eraman du bertara, eta zuloa egin... Eta galdera bera, berriz. Nori okurritzen zaio halakorik egitea? Ze asmorekin? Denoi mesede egiten digun seinalea izorratzea. Ulerkaitza, ezta?

Eskubideen aldarrikapena eguneroko oia da Covid 19aren garai latz hauetan, eta horiek aldarrikatzea bidezkoa den neurrian, komenigarria litzateke bete behar erraz, sinple eta zentzuzko batzuk ere baditugula gogoratzea. Non eta aterpe bateko leihoak, edota seinaleztapenak haustea eskubide ukaezina dela pentsatzen dutenentzat izan ezik.

Buruntzaren berpiztea

AINHOA JAUREGI URNIETA

Orain dela urte pare bat Buruntza hildako abereak, itxitako bideak, putreak buru gaineen hegan eta jenderik ez batere bidean, horixe zen. Konfinamenduaren aurretik jende gehiago ikusten zen, eta etxeratzean Buruntza esnatu egin da, protagonismoa hartu du, izan bide batetik edo bestetik. Abereak zainduagoak ikusi ditut, bideak ere garbi. Putreek hor segitzen dute, baina gazte koadrila asko ikusten dira Lasarte, Urnieta eta Andoaindik, mendian gora eta behera. Poza eman dit horrek. Lehen halako tristura ematen zuen mendiak, eta aldatu da.

Buruntzak aldeko ezaugarri on asko baititu. Oinez eroso da,

ordubeteen herriko edozein txokotik gailurrean zaudela esango nuke, eta korrika ere azkar samar puntan zaude. Bi orduko lan saio bat egin nahi baduzu jokoa ematen du, kirolari trebatua izan edo ez. Heritik bertatik abia zaitezke, autoa hartzeko beharrik izan gabe, eta Onddi edo Adarramendira joan nahi baduzu autoa hartzea komeni. Gainera, azken aldian, Besabin autoa aparkatzeko komeriak izan dira. Haraino joateko ere asfalto gaineen bide luzea egin behar da, baserri askotatik pasa, eta zakurrak akaso sueto...

Buruntzara joateko kiroldegi gaineen bide zidorra hartu eta

segituan mendian zaudela sentitzen duzu. Etxeratzean hainbat lagun eta ezagun topatu izan ditut Buruntzan, asko astero lauzpabost aldiz igo direnak, eta haiekin topatzeko eta solastatzeko aukera beste pizgarri bat izan da. Pandemiak gauza txarrak bakarrik ekarri dizkigula uste dugun honetan, onak ere ekarri dizkigu: Buruntza gure oroimenera bueltatzea. Alegia, Buruntzaren berpiztea.

PANDEMIAK GAUZA TXARRAK BAKARRIK EKARRI DIZKIGULA USTE DUGUN HONETAN, ONAK ERE EKARRI DIZKIGU



AIURRI



UDALA

Kirol jarduerak etxolan

Astelehenean hasita, Urnietako Berrasoetako aparkaleku ondoko etxolatan egokitutako kirol guneak zabalik daude. Muskulazio eta kardio gelak dira, eta Udalak segurtasun eta higie-ne neurri guztiak hartzeko baliabideak jarri ditu. Era berean, atletismoan aritzeko pista zabalik dago. Kasu guztietan erabiltzaileek



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Udal pilotalekua

Udal pilotalekua ere zabalik dago, aste honetatik aurrera. Hori bai, gehienez lau pertsonako taldeek erabiltzeko aukera dute. Hitzordua hartzeko kiroldegiko harrerara deitu behar da (943 00 83 28). Frontoia erabili ahal izateko Berrasoetako aparkalekuan egokitu duten harrera bulegotik hartu behar da giltza. Ondoren, hara eraman behar da berriro.



Urnietako
udala

Udalekuak kirola eta aisialdia uztartuta

Sport Madness enpresak "Andoain konkistatzera Udalekuak" ekimena antolatu du, uztailerako. Bi aste-ko txandak antolatu dituzte, kirola eta aisialdia uztartuz. Izena emateko aukera zabalik dago

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ginkana, orientazio jolasak, proba fisikoak... Haur eta gaztetxoei begira, Andoainen haur- ren udako aisialdia osatzeko aukera badago Sport Madness enpresaren eskutik.

Pandemiatik ateratzeko 3. fasea abian jartzearekin batera, udaleku irekiak antolatu dituzue Andoainen. Azalduko al duzue zein den ekimena?

Gu biak, beste hainbat kidearekin batera, proposamen ezberdinak lantzen ari gara probintzia eta erkidego ezberdinetan. Propo- samen berezi modura aurkeztu dugu, ohiko aisialdiari alterna- tiba bilatu asmoz. Gauza da jende askok ulertu duela oso proba gogorak izango direla, oso zailak. Ez da hori izango, inondik inora. Aisialdiari lotu- tako probak izango dira, neska- mutil guztiek lasai eta eroso egiteko modukoak. Helburua ondo pasatzea izango da. Proba ezberdinak egin eta gero, talde- ko bakoitzak Andoaingo arma- rria eskuratuko du.

Zuen ekimen propioa da, honakoa? Non egingo dira udalekuak?

Bai, gure ekimenez antolatu da. Egun bakoitzeko A eta B plana prest ditugu, eguraldiaren ara- bera bat edo beste martxan jar- tzeke. Euriarekin herriko ater- peak erabiliko ditugu. Euriare- kin edo eguzkiarekin, proba ezberdinak egingo ditugu. Eta euskararen sustapena ere oso presente izango dugu.

Aurten 'Goazen joastera' udaleku- rik gabe, interes berezia nabaritu al duzue?

Lehen txandarako hogeitau hurrek eman dute izena, eta bigarren txandarako ere deiak jaso ditu- gu. Bi txandak osatzeko adina izen-emate beharko genituzke. **Segurtasun eta higie-ne aldetik ber- me guztiak eskaini beharko dituzue.** Bai, noski. Eusko Jaurlaritzak zehaztuko duen protokoloa era- biliko dugu, bai ala bai.



Beñat Lopetegi eta Aratz Irigaray udaleku irekietako antolatzaileak dira. AIURRI

Haurrak non elkartuko dira, goize- ko lehen orduan?

Talde bakoitza herriko gune ezberdinetan elkartuko da be- giralearekin. Informazio zehatza emailaz jasoko dute parte har- tzaileen gurasoek.

Sport Madness enpresak zein es- perientzia du antzeko lanetan?

Jon Gaztañaga futbol kanpusa- rekin hasi ginen lanean, eta hortik aurrera ibilbidea osatzen ari gara. Lasarte-Oriako Egube- rrietako PINa eta Ibarako uda- lekuak antolatu ditugu, eta bes- te hainbat ekimen gehiago ere.

Bi txanda uztailen

- Bi txanda: Uztailak 6-17 eta Uztailak 20-30.
- Ordutegia: 09:00-13:00.
- Informazioa: Aratz eta Beñat. 627 882 485. 627 341 707.
- E-posta: konkisandoain@gmail.com
- Prezioa: 120 euro.



andoaINDARRA
euskaraz



Astearte goizean abiatu zen aurrez aurreko arreta zerbitzua. AIURRI

Gizarte Zerbitzuetako aurrez aurreko arreta zerbitzua zabalik

Astearteaz geroztik, aurrez aurreko arreta zerbitzua berreskuratu dute Anbrosia Olabideko Udal zerbitzuetan

Erredakzioa ANDOAIN

Bi gizarte langile arituko dira arreta zerbitzua eskaintzen, astelehenetik ostegunera. Gizarte Zerbitzuetatik aurreratu dutenez, komenigarria da hitzordura hurbilduko den pertsonak ahalik eta agiritegi osatuena eramatea, tramitazioa errazteko baliagarri izango baita.

Koronabirusak eragindako krisiak arreta zerbitzua biderkatzea ekarri badu ere, telematikoa izan da harremana. Asteartean hasita, ordea, Gizarte Zerbitzuen lansaila aurrez aurreko arreta zerbitzura itzuliko da. Ohi bezala, hitzordua aurretik eskatu beharko da 943 304 343 telefono zenbakira deituta.

Derrigorrezkoa da gune publikoetan maskarak erabiltzea, eta, beraz, segurtasun handiagoa izateko bulegoetara doazenek beren maskara eta boligrafoa eramatea gomendatzen da.

Gizarte Zerbitzuetako bulegoetara joateko segurtasun eta higiene neurriak hartu ditu Udalak. Gizarte Zerbitzuetako bulegora banaka sartuko dira, mendekotasuna duten pertsonak izan ezik. Bestalde, arreta zerbitzua eskaintzeko espazioa berregokitu eta mahai guztietan manparak jarri dituzte. Eskuak garbitzeko hidrogela egongo da eta, hitzordu bakoitzaren ondoren, aulkiak eta mahaiak desinfektatu egingo dira.

Eskatzaileen kopurua, gorantz

Asteartean adierazitakoaren arabera, informazio bila hurbildu den herritar kopurua nabarmen hazi da. Besteak beste, ERTeAn sartuta dauden herritarrak edota orain arte lan hitzarmen-dik gabe lanean aritu behar izan dutenak. Langabezia edo laguntzarik gabe, eskasiak jotako pertsonak dira, azken horiek.



Udal Musika eskolako eraikina Lekaio ondoan dago. AIURRI

Urnietako Udal musika eskolan izena emateko epea zabalik dago

2020-2021 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea datorren ekainaren 17ra arte egongo da zabalik

Erredakzioa URNIETA

Lourdes Iriondo Musika Eskolan zabalik dago matrikulazioa egiteko epea. Internet bidez egin beharko da izen-ematea, hori bai: "Koronabirusa dela eta bizi dugun egoeraren ondorioz, interesa dutenek online bidez gauzatu beharko dute izen ematea. Horretarako, Udalaren webgunean edo APP-an sartu, bertan topatuko duten izen emate orria bete eta lourdesiriondo@urnieta.eus helbidera emaila bidali beharko dute".

Informazio osagarria emateko telefono zenbakia eskura jarri dute: 943 00 80 33. Arretarako ordutegia honakoa izango da: Astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00tan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte.

Izena emateko astea igarota, hilabetearen amaieran jakinaraziko dute ikaslea onartua izan den ala ez.

Eskaintza zabalak

- Musika tailerra: 4, 5 eta 6 urtekoentzat saioak. Musika eta mugimenduaren bidez kantua, entzumen-heziketa, erritmoa eta musika-grafia lantzen dira. 45 minutuko 2 saio astean.
- Musika hizkuntza: Partitura irakurri eta interpretatu ahal izateko beharrezko erraminta. Astean ordubeteko bi saio.
- Espezialitateak: Pianoa, trikitixa, panderoa, biolina, klarineta, saxofoia, tronpeta eta perkusioa. Ordu erdiko saio bat, astean.
- Instrumentu taldeak: Instrumentua urte batez ikasi ondoren, ikasleek taldekako eskolatan parte hartzeko aukera izango dute.

Otsailean eta ekainean eskainiko diren bi kontzertuez gain, musika jarduera desberdinak egingo dira ikasturtean zehar.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Irati Fernandez

Zorionak Irati, nola pasa den denbora, 5 urte handi! Muxu handi handi bat etxekoan partez!



ANDOAIN

Malen

Malenek 8 urte beteko ditu datorren ekainaren 18an. Zorionak, maitia! Asko maite zaitugu! Etxekoak



ANDOAIN

Zorionak bikote eta urte askotarako!

Ana Mari Ugartemendia eta Joxe Migel Ezama 1970eko ekainaren 13an, San Antonio egunean ezkondu ziren. Egun berean urrezko ezteiak ospatuko dituzte, beren bi alaba, bi suhia eta lau bilobekin batera.

Oso erraza da, eta dohainik!

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 13 eta igandea 14

ZATARAIN: Elizondo, 6. Arteta.

943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 13 eta igandea 14

ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.

'Cuevas'. 943 552 087 Hernani.

Lankidetza hitzarmenak

Aiurri astekariaren argitaratzaile den Erroitzek lankidetza hitzarmen bana sinatu du Andoingo eta Urnietako Udalekin. Urtearen hasieran Urnietan egin zen hitzarmenaren sinadura ekitaldia, eta aste honetan egin da Andoingoan. Andoingo sinadura ekitaldian Mikel Arregi ENBAko zinegotzia bertan izan zen, Maider Lainez alkatearekin batera.



Ubeda eta Lainez, hitzarmena sinatzen. Agerraldian ere Arregi izan zen. AIURRI



Pagola eta Ubeda, otsailaren hasieran egin zen sinadura ekitaldian. AIURRI



Euskal Sagardoa. AIURRI

'Euskal Sagardoa' uzta berriaren aurkezpena

Ostegun honetan egingo dute aurkezpen ekitaldia, Hernaniko Chillida Leku museoan

Erredakzioa URNIETA

Euskal Sagardoak 2019ko uzta aurkeztuko du, ostegun honetan: "Sagardotegien Euskal Sagardo botila guztiak bertan izango dira eta ez ohizko egoeratik ateratzen ari garen honetan jendeak dastatu ahal izango dituen Euskal Sagardoaren ezaugarriak azalduko dira".

Euskal Sagardoa jatorri-deituraren koordinatzaile Unai Agirrerekin batera, agerraldian jatorri-deitura sustatzen duten erakunde publikoetako ordezkariak parte hartuko du. Honakoak: Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Politikako Sailburuordea, Xabier Arruti Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendaria, Iker Goiria Gipuzkoako Turismo zuzendaria, Oihana Gancerain Euskal Sagardoa jatorri-deiturako presidentea, Felix San Sebastian sagargilea eta jatorri-deiturako zuzendaritzako kidea eta Olatz Mitxelena Sagardoa Route ekimeneko koordinatzailea.

Prentsaurrekoaren ondoren, Euskal Sagardoa dastatzeko aukera izango da Mikel Garaiabal sommelier ezagunaren eskutik.

Sagardoarena Koronabirusak gogor jo duen sektoreetakoa da.



Artzaienea baserrian bizi den Igor Jauregi "Gartxot", aurkikuntzaren ondoan. AIURRI

"Bizidantza" ikuskizuna DVDn ikusgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen urtarilaren 25ean Andoaingo Bastero Kulturgunean eskaini zuten ikuskizuna DVDn argitaratu dute. Dagoeneko eskuragarri dago Katxiporreta.eus webgunean eta ohiko dendetan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Dantzen tradizioari begiratu die oraingoan pailazoen: ohorezko kontrapasa, kalejira, martxa, txapeloaz, dantza jauzia, katadera edo aulki dantza, Xan Petrike dantza, esku dantza, fandangoa, banangoa, ... dantzak gure kulturaren eta gurean duen eraginari erreparatu diote, Vanesa Castaño eta Jon Maya dantzari erreteriarren laguntzaz.

Tradiziotik edan eta Leire Bilbaoren hitzekin, Xabier Zabalen doinuekin kantari eta dantzan aritu dira oholtzan Pirritx, Porrotx, Marimotots eta

Erretereriako Udal Musika eta Dantza Eskolako haurrak eta Erein dantza taldeko gazteak.

BIZI DANTZA IKUSKIZUNA, ANDOAINDIK MUNDURA

Ikuskizuna azaroan estreinatu zuten, eta koronabirusaren izurriteak dantza geldiarazi bitartean, 46 herritan eskaini zituzten saioak, tokian tokiko dantza taldeekin batera. Herriz herri, kolore eta izaera askotako dantza taldeak ezagutu dituzte, haiekin batera dantzatzu eta gozatzu eta irailetik aurrera dantzan jarraitzeko asmoa dute herriz-irri.

DVDko irudiak Andoaingo Bastero Antzokian grabatu zituen pailazo taldeak, joan zen urtarilaren 25ean. Bi saio eskaini zituzten orduko hartan.

Dagoeneko ikus-entzunezkoa erosteko aukera dago dago www.katxiporreta.eus webgunean eta ohiko dendetan.

EUSKAL DANTZEN TRADIZIOARI BEGIRA JARRI ETA IKUSKIZUNA PRESTATU DUTE



Bizidantza DVDa. AIURRI

Aurkezpena

"Lurra sortu zen unetik bertatik, jirabiraka dantzari hasi zen bere buruaren eta eguzkiaren inguruan. Animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, dantzari dabilta luraren inguruan. Geu ere hitzaren jabe izan aurretik dantzatzeko gara, zaldiak, izurdeak eta tximeletak bezala. Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzeko gara. Barruak agintzen digunean dantzatzeko gara. Gure kultura ospatu eta errituak berritzeko. Garen hori mugimenduan jartzeko. Zangoak luzatuz, gerria mugituz, hegoak astinduz eta ur azpian ere dantzatzeko gara gu. Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!"